

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko urriaren 4a. VIII. urtea. 2.283. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

‘Eskola Baratza’ proiektua, nekazaritzara gerturatzeko

Tolomendik eta eskualdeko zazpi ikastetxek hitzarmena sinatu dute, ikasleek baratzeak landu eta nekazarien lana «baloratzeko» 02



Tolomendiko eta ikastetxeetako ordezkariak, aurkezpenean. ITZEA URKIZU



SARA GOMEZ

→ **Herriko produktuen azoka, Belauntzan.** Hirugarrenoz egin zuten herenegun Merkatu Txikia, eta herri bertako askotariko produktuak izan ziren erosiak. Eliza inguruan jarri zituzten postuak, eta herritar heldu zein gazteak aritu ziren saltzaile lanetan. Azoka bukatu eta gero, denek elkarrekin bazkaldu zuten. 05

Anoetako Euskal Jaietan egun osoko festa egingo dute

Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta dute festa, eta «gure nortasuna adierazi eta bertako nekazariari babesa ematea» da asmoa; besteak beste, azoka egingo dute, igandean 03

Jon Irazu aizkolari zizurkildarra bigarren mailan ariko da

III. Mailako Txapelketa irabazi du Irazuk; Jon Rekondo leitzarra Nafarroako I. Mailako finalerako sailkatu da 07

Urrezko beste hiru domina lortu ditu Leire Olaberriak

Udan errepidean aritu ondoren, pistara itzuli da txirrindulari ikaztegiatarra, eta Espainiako Txapelketan «espero baino emaitza hobek» eskuratu ditu 06

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com





Hitzarmenean parte hartu duten ikastetxeetako zuzendariak, sinadura ekitaldian. I. URKIZU

‘Eskola Baratza’ hitzarmena sinatu dute nekazarien lana «ezagutu eta baloratzeko»

Eskualdeko zazpi ikastetxek sinatu dute proiektuaren hitzarmena, Tolomendirekin

Itzea Urkizu Tolosa

Nekazaritzaren garapena eta ingurumenaren errespetua sustatzeko lan egiten du Tolomendik. Pasa den ostiralean, *Eskola Baratza* hitzarmena sinatu zuen eskualdeko zazpi ikastetxekin, «ikasleei elikadura nahiz nekazaritzaren garrantzia» transmititzeko helburuarekin; akordioaren ondorioz, Tolomendik ikastetxei *Eskola Baratza* modu egokian lantzeko beharrezko aholkularitza eta finantzaketa eskainiko die.

Guztira zazpi ikastetxek sinatu dute akordioa, baina Tolomendiko arduradunek azaldu dutenez, «hitzarmena irekia da, eta edozein ikastetxe gurekin harremanetan jar daiteke, proiektuan par-

te hartu nahi baldin badu». Horrela beraz, Zizurkil Goiko San Millan ikastetxeak, Zizurkil Behoko Pedro Mari Otaño ikastetxeak, Tolosako Samaniego ikastetxeak, Berrobiko San Andres ikastetxeak, Ibarrako Uzturpe ikastetxeak, Altzoko Imaz Bertsolaria ikastetxeak eta Anoetako Herri Ikastolak sinatu dute, oraingoz bi urterako izango den hitzarmena; luzatzeko aukera izango dute, ordea.

Eskola Baratzak, besteak beste, hiru helburu nagusi ditu. Alde batetik, nekazal aktibitatearen ezagutza eta errekonoizimendua sortzea dute xede, era berean elikagai osasuntsuen, paisaiaren eta kulturaren ekoizle gisa arituz. Bestalde, lurrari eta garaian garaikoari lotutako ekoizpen eredu ekologikoak lantzea eta ezagutzea ere jomugetakoa bat da. Azkenik, *Eskola Baratzak* ikastetxeetako curriculum proiektuetan txertatu nahi dute.

Hitzarmenean sinatutakoa aurrrera eramateko, Tolomendik baratzeeen mantenturako diru lagun-

tzak nahiz aholkuak emango dizkiete ikastetxeei; %65a ordainduko du Tolomendik, eta ikastetxeek finantzaketa %100era iritsi arte osatzeko konpromisoa hartu dute. Bide beretik, lurra aldatzen, negutegiak jartzen eta tresna egokiak eskuratzen ere lagunduko die Tolomendik.

Ikasturte amaieran, ikastetxe-etako eta Tolomendiko arduradunak kurtso osoko balorazioa egiteko bilduko dira. Horrez gain, «etorkizunera begirako neurriak nahiz hobekuntzak ere proposatuko dituzte».

Baratzera gerturatzu

Tolosako Samaniego ikastetxean, duela urte batzuk hasi ziren baratzeko lanetan. Bertako irakasle batek azaldu zuenez, 3. zikloko neska-mutilekin aritzen dira baratzan. Besteak beste, lurra jorratu eta prestatu egiten dute, ondoren haziak landatzeko.

Ikasleek eurek landutako baratzek ematen dituen produktuekin, azoka bat antolatzen dutela ere azaldu zuen Samaniegoko irakasleak: «Baratzeeen proiektuarekin, beraz, pisuarekin eta diruarekin kalkuluak ere egiten dituzte, eta hau oso baliagarria zaie eguneroko bizitzarako». Modu berean, elikagaien prozesua ezagutzeko eta baserri-tarraren lana baretan baloratzeko bidea dela nabarmendu zuen irakasleak.

Azkenik, *Eskola Baratzak* bezalako proiektuek aniztasunari lekua uzten diotela azaldu zuen irakasleak. Izan ere, «gelan lantzen dituzten irakasgaietan zailtasunak dituzten haurrak jaun eta jabe izaten dira baratzean».

o.tolosa@hitza.info

Gutunak

Eskerrak laguntzagatik

Izaskun auzoko festa batzordearen eskertza gutuna, jaietan euren laguntza eskaini duten herritar guztientzat.

Izaskun auzoko festa batzordeak eskerrak eman nahi dizkie aurtengo festak posible egin ditzuten pertsona eta eragile guztiei. Hala nola, Arsenal, Emendek eta Izaskun elkarteak; auzoko denda eta tabernei eta Otsabi auzo elkarteko gazteei, hauek gabe gure jaiak antolatzeari zaila izango litzateke eta.

Bestalde, esker bereziak Bonberenea gaztetxeari, TAK-i eta bere zuzendaritzari, Vista Alegre txarangari, Sputnik 11 mugimenduari eta Tolosako Udaleko kulturako eta gazterriko oraingo nahiz aurreko zinegotziei, beraien lana goraiatzeko izan baita. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu auzora inguratu ziren guztiei, hauek baitira jai herritokoiak indartzen dituztenak. Datorren urtera arte!

■ **Izaskun auzoko festa batzordea.**

Teknologia berrien baliabideak nola erabili erakutsiko dute

Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien III. Astea antolatuko dute

I. Urkizu

Tolosaldea Garatzen-ek eta Lehiberrik, Enpresa Digitalarekin batera, hirugarrenez antolatuko dute Tolosaldeko III. Informazio eta Komunikazio Teknologikoen Astea.

Egitaraua bereziki enpresei zuzendurikoa den arren, edozein herritarrek parte hartu ahal izango du ikastaroetan. Enpresetan aplikazio erraza eta sinplea duten gaiak jorratuko dituzte jardunaldietan, eta hauek eskualdeko hainbat industrialdetan egokitu-tako ikasgela mugikorretan izango dira, Euskaltel Fundazioaren laguntzaz. Era berean, Tolosako KZgunean ere hainbat gauza antolatuko dituzte.

Enpresei zuzenduriko ikastaro edo hitzaldien artean, honakoak izango dira: *Erraztu zure lana doako erremintekin*, *Zure lehiakideen berri izan Internet bidez*, *Interneti eskerrak zure fakturazioa igo* eta *Software librea erabiliz kostuak aurreztu*.

Bestalde, merkatariei zuzenduriko ikastaroa ere izango da; 2 orduko 5 kurtso burutuko dituzte, *Teknologia berrien inguruan eguneratuta nola egon* izeneko ikastaroan.

Azkenik, herritar guztientzako lau ikastaro izango dira: *Internet bidezko erosketak*, *Sare sozialen bitartez erlazioanatu*, *Software librea: ez ordaindu lizentzia gehiago eta Gailu mugikorren erabilera segurua*.

Irubelaskoa mendira igoko dira Alpino Uzturreko kideak

Igande goizean abiatuko dira Bidarraira autobusean, eta sei ordu inguruko ibilbidea egingo dute

I. Urkizu

Datorren igandean, urriak 9, Alpino Uzturre Elkarteak Irubelaskoa mendira irteera egingo du. Txangoa Bidarrairen (Nafarroa Beherea) hasiko dute, eta Amairren (Nafarroa) bukatuko dute.

Goizeko 07:30ean irteera dira autobusean, San Frantziskotik. Alpino Uzturre elkarteko kideak, 11 euro ordaindu beharko dute, eta bakzide ez direnek, berriz, 13 euro. Informazio gehiagorako edo izena emateko, 943 65 27 89 telefonora dei daiteke, edo alpino@hotmail.com helbidera idatzi.

967 metroko igoera

Aritzakun eta Urritzate bailaren artean dago Irubelaskoa edo Alkaxuri mendia (967 metro).

Igoerarik gogorrenetarikoa iparraldetik egiten dena da. Bidarraitik Sumutsuko bordara (147 metro) iritsi behar da, eta handik tontorrerako bidea hartu. Ibilaldia 6 ordu inguruko izango dela azaldu dute arduradunek.

ZUZENKETA: Pasa den irailean 30eko Gipuzkoako Hitzan, azken orrian argitaratutako albistearen inguruan. Albistean Mirentxu Etxeberria irakasle izan dela jartzen badu ere, ez da behin ere irakasle lanetan aritu. Era berean, Onda Vasca irratia egunero entzuten badu ere, ez du inoiz bertan parte hartu. Bar-katu eragozpenak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****Egungo egoera politikoaz hitz egiteko herri batzarra**

AMEZKETA ▶ Amezketako ezker abertzaleak herri batzarra egingo du. Bihar, 20:30ean izango da, eta gela polibaleantean elkartzeko dira. Bertan gaur egungo prozesuaren berri emango dute, eta azken hilabeteetako ondorio politiko nagusiak jorratuko dituzte. Herriar guztiei bertara joateko gonbita luzatzen diete.

Ezker abertzalearen herri batzarra ostegunean

TOLOSA ▶ Tolosako ezker abertzaleak herri batzarra egingo du hilaren 6ean, ostegunean. 20:00etan, udaletxeko pleno aretoan izango da. Bertan gaur egungo prozesuaren berri emango dute, azaroko hauteskundeaz hitz egingo da, eta Amaiuren inguruko informazioa azalduko dute. Herriar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartzera.

KZgungo tutoretza egunak jarri dituzte

ZIZURKIL ▶ Zizurkilgo KZgungo tutoretzarako egunak zehaztu dituzte. Bi egun jarri dituzte eta lehena, hilaren 6ean, ostegunean, 09:00etatik 13:30era izango da. Hurrengo tutoretza ordua berriz, hilaren 20ean izango da ordutegi berean.

Herri afarirako txartelak Goikoetxearean daude

UGARTE ▶ Ostiralean hasiko dituzte Erosarioko Amaren jaiak Ugarten. Hiru egun izango dituzte festarako. Ostiralean, hilaren 7an, 21:00etan herri afaria egingo dute. Afaria joan nahi duenak txartela erosi beharko du, eta dagoeneko salgai daude Goikoetxearean. Afariaren aurretik Muñoa eta Gorostidi bertsolariak izango dira, eta ondoren trikitalariak.

UEMaren zuzendaritza batzordea osatu dute

EUSKARA ▶ Larunbatean osatu zuten UEMaren Zuzendaritza Batzorde berria. UEMAko lehendakaria Maren Belastegi Bergarako zinegotzia izango da. Berarekin batera, zuzendaritza berriko kideak, Mikel Ansotegi Aulestikoa, Jon Abril Berakoa, Asier Mujika Aramakoa, Lexuri Arrizabalaga Gatikakoa, Oibar Egia Gizaburuagakoa, Iñaki Agirrezabalaga Zumaiakoa, Miren Irigoien Oiarzungo, Josexto Mendizabal Zestoakoa eta Eneka Maiz Etxarri-Aranatzekoa izango dira.

Baserri mundua ardatz hartuta Euskal Jaia ospatuko dute, igandean

Herriko txistularien kalejirarekin hasi, eta azoka, erakustaldiak, bazkaria, musika, ardo dastaketa,... izango dira

Eneritz Maiz Anoeta

Hilaren 9an, igandean, Euskal Jaia ospatuko dute Anoetan. Anoetako Udalak eta herriko hainbat eragilek antolatuta, egun osoko festa izango da. Udazkena iristearekin batera, eta azken urteetako ohiturari jarraituz, urriko bigarren igandean ospatuko dute.

Ostiralean aurkeztu zuten egitaraua. «Gure kulturaren eta eguneroko bizitzaren zati garrantzitsu bat denez, baserri mundua izango dugu jaiaren ardatz, eta bertan sakonduz artoaren lanke-ta hobeto ezagutuko dugu», adierazi zuten.

Urtero bezala, «aurten antolatu diren ekitaldiak aurrera eramateko beharrezkoa ikusten dugu herritar guztion parte hartzea eta ekarpena» azpimarratu zuten. Era berean, «eguna euskal giro jator eta atseginean igarotzeaz gain, antolakuntzak lan ezberdinetarako jarri dituen zerrendatan izena ematera animatzen zaituztegu», gaineratu zuten.

«Euskaldunon jaiia ospatzera goaz, eta gure nortasuna adierazteaz gain, bertako eta inguruko nekazariei babesa eman nahi diegu», esan zuten antolatzaileek. Baserriarrez jantzita joateko deia luzatu dute.

Festa handia igandean da, baina bezperan ere izango da zer ikusia. 17:30ean Urrezko Segapotua Segaxapelketa Herrikoia egin-



Herriko hainbat eragilek eta udal ordezkariak aurkeztu zuten igandean egingo duten euskal jaiia. E. MAIZ

go dute Arozetxeko zelaian. Iluntzean berriz, hurrengo egunean bazkalduko duten txekorri jarriko dute erretzen.

Bertako produktuak salgai

Azokara hurbildu, eta asko herrikoak bertekariarik gabe bertako produktuak erosteko deia luzatu zuten antolatzaileek. Erosketak egiteko etxetik poltsa eramatea nahi dute.

Postu ezberdin asko egongo dira ikusgai, eta asko herrikoak izango dira: herriko barazkiak eta landareak, egur taila, pilota, bi-txiak, ukenduak, teila dekoratuak, pampina artisauak, harria, pateak, kamisetak, ardoak, mermeladak, gazta, esnekiak, saskiak, belarritakoak, artoazalezko eskulanak,... Ikastolak ere pintxo postua jarriko du.

Postu politena saritua izango da, eta azokan erosten dutenek aukeratu dute. Azokako postuetan erostekak egiten dituztenei txartel bat emango zaie, eta postu politena bozkatzeko auke-

↓ **Anoetako Euskal Jaia****URRIAK 8, LARUNBATA**

■ **17:30.** Urrezko Segapotua Segaxapelketa Herrikoia egingo dute Arozetxeko zelaian.
■ **Iluntzean.** Hurrengo egunean bazkaltzeko izango duten txekorri jarriko dute erretzen.

URRIAK 9, IGANDEA

■ **09:30.** Herriko txistularien kalejira.
■ **10:00-13:30.** Eskualdeko baserriar eta artisauen azoka plazan, dultzaineroek eta Donostiako joaldunek alaiturik.
■ **Ondoren.** Goizean zehar erakustaldia izango da: artoaren

lanketa eta Matxinbentako saskigilea saskiak egiten.

■ **11:00-12:00.** Talo tailerra umeentzat.
■ **12:00.** Jaiaren aurkezpena txalapartariekin, dantzariekin eta Loatzo Musika eskolako ikasleekin.
■ **Ondoren.** Loatzoko trikitalarien, esku soinu-joleen eta txar-rangaren kalejira.
■ **12:30.** Ardo dastaketa egingo dute.
■ **14:00.** Herri bazkaria frontoian.
■ **17:30.** Harrijasotzaileak: izeta aita-semeak.
■ **19:00.** Talogileak eta erromeria Zesuma taldearekin plazan.

Musikaririk ez da faltako, eta bazkarirako menu nagusia txekorri izango dute. Eguna bukatzeko, berriz, harri-jasotzaileak, talogileak eta Zesuma taldearekin erromeria izango dira.

Teodoro Hernandorena X. Ipuin Lehiaketako oinarriak prest daude

Lehiaketaren oinarriak Zizurkilgo udal bulegoetan daude; lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 11 da

E. Maiz Zizurkil

Teodoro Hernandorena Ipuin Lehiaketaren X. edizioa prestatu dute. Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarre-

kin batera, Andoaingoek ere parte hartzeko aukera izango dute.

Ipuin lehiaketa hau, adinaren arabera bost maila ezberdinetan banatzen dute: A maila, 6-8 urte artekoentzat; B maila, 9-11 urtekoentzat; C maila, 12 eta 13 urte dituztenentzat; D maila, 14-16 urte bitartekoentzat, eta E maila, 17 urtetik gorakoentzat. Lan bakoitzaren hiru kopia aurkeztu behar dira Zizurkilgo udal bulegoetan, eta lehiaketako oinarriak ere bertan daude. Azken eguna azaroaren 11 izango da.

Euskara ikastaroetan izen emate epea, zabalik

Alfabetatzeko edo euskara ikasi edo hobetu nahi duten helduek ikasteko aukera izango dute

E. Maiz Anoeta


Anoetako Udalak euskara ikasi, hobetu edo alfabetatu nahi dutenentzat izen emate epea ireki du. Taldeak osatuko balira, Anoetan bertan izango lirateke. Udaletxeari eman beharko dute izena, 09:00etatik 13:00etara, eta azken

eguna urriaren 21a izango da. Udalak euskara ikasteko diru laguntzak ematen ditu.

Iragarki laburrak**SALGAI**

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua Tolosan. Eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jan-gela handia, sukaldea, bi auto-erentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua. Interesatuak deitu 678 267 657 telefonora.

Irura eta Aldaba



IRURAN ETA ALDABAN AGUR ESAN DIETE JAIEI

Urriko lehen asteburuak agurtu ditu Irura eta Aldabako jaiak. Herensugoa larunbatean erre zuten Iruran, eta festak igande gozaldiera arte iraun zuten. Aurrez, herri

bazkaria eta haurrentzako parkeaz gozatzeko aukera egon zen. Hala eta guztiz ere, uztailaren 9an, jubilatutako penitentsiaren eguna ospatuko da. Aldaban, meza na-

gusiarekin hasi zen azken eguna, igandean. Herri bazkariaren aurretik eta ondoren, herri kirolak ikusteko aukera egon zen, azkolari eta pilotarien eskutik.



Tolosa



SOS HAUR LAPURTUAK

SOS Lapurtutako Haurrek Euskadi elkarteek kideek manifestazioa egin zuten larunbatean Tolosan. Euren seme-alabak edo anai-are-
 bak non dauden galdietu zuten, eta «Ume ostuak, guraso engainatuak» izan bezalako aldarrikere zabaldu zituzten Tolosa kaleetan. Lekukotza hunkigarrien artean, udaltesaren aurrean hasi zen manifestazioa Trianguloa plazan amaitu zen, elkarretaratzeko batekin.

Belauntza



MERKATU TXIKIA EGIN DUTE HERRIKO PRODUKTUEKIN

Belauntzan III. Merkatu Txikia ospatu zen igandean. Alde batetik, abereak ikusteko aukera izan zen, eta bestetik, eskulan, barazki eta fruituak erosten. Azokan

ikusgai eta erakusgai egon zen guztia, herriko etbe eta baserrietatik eraman zituzten herrietarrek. Ezin izan ziren galnara, postuetan egon zitena. Golza III. Merkatu

Txikian igaro ondoren, eguerdian nahi zuten orok herri bazkarian parte hartzeko aukera eduku zuten, azoka egun berea agurtzeko.

Tolosa



ETIOPIAREN GARAPENAREN ALDE

Tolosan bigarren eskuko azoka jarri zuten larunbatean Abay elkarteak kideek. Euren ekimenarekin Etiopiaren garapena bultzatu nahi dute, eta helburu horrekin zabaldu zuten euren erakusletoa Trianguloa plazan. Abay-eko kideek eskerak eman nahi izan dizkie larunbatean Trianguloa plazara hiritarrak guztiei.

Tolosa



BENSAOULA ASKE UTZI DUTE

Tolosan elkarretaratzeko egin zuten ostiralean, Abdelghafour Bensaouaren askatasuna eskatzeko. Bensaoula astearte goizean Guardia Zibila Legorretan atxilotu zuten. Magrebeko Al Kaedari laguntza leporatuta. Epilekiaz inkomunikatuak eduki ostean, larunbatean aske utzi zituzten operazioan atxilotutako bost kideak.

Leizta



AURRERAK BERE EGUNA OSPATU DU

Aurrea Kirol Elkaratek bere egun handia ospatu zuten larunbatean, Leizako herrian. Elkarate berru-
 ko taldeek jai egunarekin bat egin zuten, eta emanaldia eskaini zituzten. Goizean txikiarentzako zaldi itzulak, rokodromoa eta tiroina jarri zituz-

ten. Eguerdian bazkideek bazkaria egin zuten karrapen. Ondoren inguru txoko dantzatzeaz gain, futbol partida ikusteko aukera ere egon zen. Aurreraren egun handia lurtbarekin eta musikarekin amaitu zen iluntzean.

XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

Zein da XIV. HITZA Argazki Lehiaketako zortzi argazki finalistetatik gehien gustatzen zaizuna?

Eman zure bozka, harpidedun!

Argazkiak ikusgai: www.hitza.com

Deitu: 943 65 56 95
 telefono zamaikara edo idatzi: thargazkiak@hitza.info

Euskadiko II. Mailarako txartela lortu du Jon Irazuk

III. Mailako finalean txapela jantzi zuen; Nafarroako I. Mailako finalerako txartela lortu du Jon Rekondok

Erredakzioa

Herri kirolean asteburu bete izan da igaro berri dena. Aizkoran eta lokotx-biltzean izan dira lehiak, eskualdeko ordezkariak handiarekin. Nabarmenezkoa Jon Irazuk aizkolaria zizurkildarrak eginikoa. III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finala irabazi du, eta ondorioz, bigarren mailan lehiatuko da datorren denboraldian.

Aizarnazabalen jokatu zen he-

regun III. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako finala. Irazuk egin zuen finalean lehiatu ziren sei aizkolarien artean denborarik onena. Mikel Larrañaga izan zen txapeldunordea, Irazukengandik 43 segundora. Biek ala biek bigarren mailarako txartela eskuratu zuten.

Jon Irazuk txapeldunak lehen egurretik hartu zuen aurea, eta ez zuen arazorik izan txapela janzteko. Larrañaga eta Jauregi parean aritu ziren aurreneko bi enborretan, baina bigarren 60 ontzakotan atzeratzen hasi ziren. Beraz, erraz abantaila handiarekin irabazi zuen Zizurkilgoak.

Saralegi finaletik at

Bestalde, Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanpora-

keta jokatu zen iragan larunbatean Etxarri Aranatzan. Bertan, Leitzako Jon Rekondok eta Ruben Saralegi hartu zuten parte beste zazpi aizkolarirekin batera. Guztien helburua finalerako txartela lortzea zen, baina lehen bost sailkatuen artean egotea lortu behar zen horretarako.

Bi leitzarrei dagokienez, batek baino ez zuen txartela lortu, Rekondok. Juan Jose Lopezen atzetik bigarren geratu zen, 15 segundora. Saralegi, berriz, zortzigarren sailkatu zen, maila galduez.

Garmendia, hirugarren

Aizarnazabalen Euskadiko Lokotx-Biltze Txapelketa ere jokatu zen. Eneko Garmendia baliarraindarra hirugarren geratu zen, 13 segundora.



Jon Rekondok finalerako txartela lortu zuen. SARA GOMEZ

Iñaki Otaño • Egintza Transportes Lakuntza taldeko ordezkaria

«Gure erronka mailari eustea da»

Iñigo Terradillos Villabona

Bi berdinketa erdietsi ditu denboraldi berrian Egintza-Transportes Lakuntza Villabonako areto futbol taldeak. Maila ona ematen ari da taldea, baina goian ari da huts egiten, hau da, gola falta zaio. Horixe nabarmetzen du Iñaki Otaño taldeko ordezkariak. **Aurten aldaketa edo berrikuntza nabarmen batekin dator taldea. Izan ere, lehen Egintza eta Transportes Lakuntza taldeak elkartu egin dira, talde bakar bezala lehiatzeko.** Bai, hala da. Lehen bi talde aritzen ginen maila berean lehian, eta talde bakoitzak bere jendea mugitzen zuen. Hala, batak beste ari jaten jarraitu beharrean, elkartzea erabaki genuen. Horrela, indar handiagoa dugu, bai jokalaria eta zuzendaritzari dagokionez, bai eta jarraitzaileei dagokionez ere. **Zein helburu jarri diozue hasi berri zaretzen denboraldiari?**

Maila mantentzea da gure aurtengo erronka. Izan ere, goiko ligatik 6-7 talde jaitsi dira, beraz, Bigarren B maila lehen baino kalitate edo maila handiagoko taldez osatua dagoela orain esan daiteke. Horregatik gure erronka maila mantentzea da.

Zein talde dira indartsuenak?

Nire ustez Sestao, Ibarra eta Aurrrera Vitoria dira talderik gogorrenak. Horiek sailkatuko dira goiko postuetan.

Bi partidatan bi berdinketa. Zein balantze egiten duzu denboraldi hasieraz?

Golak sartzea falta zaigu. Ez ditugu lehen bi partidak irabazi ez ditugulako golak sartu, goian asmatu ez dugulako. Askok barkatu dugu.

Mallabiaren aurka jokatu zenuten herenegun. Nolako partida izan zen?

Oso partida eroa izan zen. Partida osoan zehar atzetik ibili ginen, eta justu-justu lortu genuen berdintzea. 3-2 gindoazen, eta nor-



E. IRAOLA

gehiagoa bukatzeko 9 segundo falta zirenean sartu genuen gola. Atezain jokalaria jarri genuen, eta berak sartu zuen. Bestela, maila ona eman zuen taldeak, aurkariak baino hobea, baina atezain aurrean huts egin zuen, lehendabiziko partidatan gertatu bezala. Ea hori fintzea lortzen dugun hurrengo partidarako.

Noren aurka duzue hurrengoa?

Sestaoren aurka jokatzeko dugu datorren igandean.

Beste bi talde ere badituzue.

Bai. Gipuzkoako lehenengo mailan dugu talde bat. Hauek herenegun ekin zioten denboraldiari, eta ez edonola, 0-7 irabazi baitzuten Usurbilen jokaturako partida. Jubeniletan dugu beste taldea. Hauek ere irabazi ekin dioten ligari. Larunbatean jokatu zuten Laskorainen aurka, eta 6-2 irabazi zuten.

Zaleen animoak garrantzitsuak izango dira, ezta?

Bai, oso garrantzitsuak. Guk zorte handia dugula esan dezakegu, jarraitzaile ugari baititugu, eta gainera, orain gehiago bi taldeak elkartu egin baitira. Villabonan zale gehien mugitzen duen taldea da gurea.

Hilberriak

MARIA IZASKUN AZKOLAIN NAZABAL

Jon Diaz Azkolain zinegotziaren ama

Goian bego

Elduaingo Udala

Tolosan, 2011ko urriaren 4an

MARIA IZASKUN AZKOLAIN NAZABAL andrea

Herenegun hil zen, 78 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Senarra: Juan Luis Diaz Gorostidi; semea: Ion; anai-arrebak: Maria Jesus (†) eta Jose (†), Irene (†) eta Felix (†), Sotero (†) eta Amparo, Paco (†) eta Tere, Ignacio eta Angeli, Jose Ramon eta Begoña; ezkon anai-arrebak: Ramon (†) eta Juanita, Ignacio (†) eta Joseba (†), Antonio (†) eta Juanita, Maria eta Felix (†), Rosalia (†) (Lekaima), Jesusa eta Juan Jose (†), Pedro (†), Jose (†), Margarita eta Daniel, Miguel, Juanita eta Miguel, Jose Mari; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Haren arimaren alde otolitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitez-tela gaur, ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN Tolosako SAN FRANCISCO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Nafarroa etorbidea, 12-5A. **Tolosan, 2011ko urriaren 4a**

Oharra: Gorputz bella TOLOSako FUNERARIA VASCONGADA tanatorioan egongo da gaur, ASTEARTEA goizeko 09:15ak arte.

JUAN MARI GOROSTIDI GARMENDIA

(Kontxi Gastesiren alarguna)

Urriaren 2an hil zen, 71 urte zituela.

Beti barrez, beti jolastan horrela egongo zara gure bihotzean berriro ikusi arte.

Anai-arrebak: Pepi, M^o Kruz, Arantxa, Ina, Izaskun (†), Karmenxu (†), Jose Antonio; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. **MILA ESKER.**

Helbidea: Iparragirre, 1-3C. **Tolosan, 2011ko urriaren 4a**



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



SAHARAR HERRIA GERTUAGO

Pasa den ostegunean Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta elkarretaratzea egin zuten Tolosako Trianguloan Mendebaldeko Saharako Dajlako herrian gertatutakoak salatzeko. Izan ere, futbol partida batean piztutako liskarrak indartu, eta ondorioz, zazpi hilda-ko egon ziren, horietako bi poli-ziak zirelarik, Marokok esandakoaren arabera. Era berean, Dajlako kaleetan beste gazte saharar bat ere jipoitu zuten, eta ondorioz hil egin zen. Maichan Mohamed Lamin Lahbib zuen izena, eta 1982an jaiotakoa zen. HITZA

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Gorputza eta zentzuak izeneko afrikar dantza ikastaroa burutu ahal izango da Bonberenean. Falilou Diagne eskainiko du bihar hasi eta ekaina bitartean. Izena eman eta harremanetarako 645 718 173 eta 698 591 461 telefono zenbakitara deitu edo fallou.diagne@gmail.com eta amaia_pagola@hotmail.com helbideetara idatzi.

ERAKUSKETAK

■ **Zizurkil.** Iriarte etxean herritarren egindako artisau lanen erakusketa bisitatu daiteke hilaren 16a bitarte. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara ikusi ahal izango da, eta larunbateetan 12:00etatik 14:00etara. Azokaren egunean, hilaren 16an, goizez eta arratsaldez egongo da zabalik.

■ **Tolosa.** Makina/Tuerakusketak Aranburu jauregian azaroren 5a bitarte. GKO Gallery & BOX. A arte elkarrekin antolatute erakusketa udalaren laguntzarekin.

■ **Tolosa.** Tolosagasak urtero prestatzen duen egutegiko argazkien erakusketa Aranburu jauregian.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Ane Lopetegui Arrue (Tolosa).
Atzo 4 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**



harpidedun **TXOKOA hitza**

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

Urriak 9 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Obradoiro CAB
saskibaloia partida



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



sarrerak

